They show completely different ... /ðeɪ ʃəʊ kəm'pli:tli dɪfərənt/ Guztiz desberdinak diren ... erakusten dituzte.

Speculating / Describing

There must have been ... /ðə 'mʌst həv bi:n/
Seguruenik ... egon da / egon dira.

We can also see ... /wi: kæn 'ɔ:lsoʊ si:/
... ere ikus dezakegu.

In the background, ... /ɪn ðə 'bækgraʊnd/ Atzealdean, ...

UNIT 5

DESCRIBING A GAME

The game is suitable for ... /ðə geɪm ɪz 'su:təbl fə/
Jokoa ...t(z)ako egokia da.

The theme is ... /ðə 'θi:m ɪz/ Gaia ... da.

It deals with ... /ɪt 'di:lz wɪð/ ...ri buruzkoa da.

The graphics are (unusual / strange / realistic / frightening). /ðə 'ɡræfɪks ɑ: ʌnju:ʒuəl/streɪndʒ/ri:əlɪstɪk/frɑɪtnɪŋ/ Grafikoak (ezohikoak / arraroak / errealistak / beldurgarriak) dira.

The music is (atmospheric / sad / haunting / exciting / upbeat). /ðə 'mju:zɪk ɪz ætməsferɪk/sæd/hə:ntɪŋ/ɪksaɪtɪŋ/ ʌpbi:t/ Musika (girotzailea / tristea / emozionantea / zirraragarria / alaia) da.

DISCUSSING ISSUES

What do you mean by ... ? /wɒt du: ju 'mi:n baɪ/
Zer esan nahi duzu ...-(r)ekin?

That's not the point. /ðæts nɒt ðə 'pɔɪnt/ Hori ez da kontua.

It's hard to say. /ɪts 'hɑ:d tə seɪ/ Zaila da esatea.

That's true, but ... /ðæts 'tru: bət/ Egia da, baina ...

To be honest, ... /tu: bi: 'ɒnɪst/ Egia esanda, ...

Let's face it, ... /lets 'feɪs ɪt/ Onar dezagun, ...

There's a fine line between ... and ... /ðeəz ə faɪn 'laɪn bɪtwi:n ... ənd/ Alde gutxi dago ...-en eta ...-en artean.

That's not what I mean. /ðæts nɒt wɒt aɪ 'mi:n/
Ez dut hori esan nahi.

You're missing the point. /ju:ə 'mɪsɪŋ ðə 'pɔɪnt/
Ez duzu ulertzen esan nahi dudana., Ez duzu garrantzitsuena dena ulertzen.

UNIT 6

DESCRIBING YOUR DREAM JOB

I'd love to ... /aɪd 'lʌv tu:/ Gustatuko litzaidake ...

In order to ... , I have to ... /ɪn 'ɔ:də tu: ... aɪ 'hæv tu:/
... t(z)eko , ... behar dut.

I'll need a qualification in ... /aɪl ni:d ə kwɒlɪfɪ'keɪʃn ɪn/
...-ko titulazioa beharko dut.

I can't decide between ... /aɪ kɑ:nt dɪ'saɪd bɪtwi:n/
Ezin dut ...-en eta ...-en artean erabaki.

It's important to have / get ... /ɪts ɪm'pɔ:tnt tu: həv/get/
Garrantzitsua da ... izatea / lortzea.

My ideal job would be ... /maɪ aɪ'di:əl dʒɒb wʊd bi:/
Nire lan ideala ... litzateke.

For this job, you need to be ... /fɔ: 'ðɪs dʒɒb ju: ni:d tə bi:/
Lan honetan, ... izan behar duzu.

A JOB INTERVIEW

I hope to be ... /aɪ 'həʊp tə bi:/ ... izatea espero dut.

I have been working as ... /aɪ həv bi:n 'wɜ:kɪŋ æz/
... daramatzat lanean.

... this job will help me ... /'ðɪs dʒɒb wɪl help mi:/
... lan honek lagunduko dit ...

... the work includes ... /ðə wɜ:k ɪn'klu:dz/
... lanak ... barne hartzen du.

The salary is ... /ðə 'sæləri ɪz/ Soldata ... da.

... you'll find that ... /ju:l 'faɪnd ðæt/ ... konturatuko zara ...

You'll be required to ... /ju:l bi: rɪ'kwaɪəd tu:/
... egitea eskatuko zaizu.

GETTING STARTED

PRESENT SIMPLE

FORM		
Affirmative I / You eat He / She / It eats We / You / They eat	Negative I / You do not (don't) eat He / She / It does not (doesn't) eat We / You / They do not (don't) eat	Interrogative Do I / you eat? Does he / she / it eat? Do we / you / they eat?
USES	EXAMPLES	ADVERBS OF FREQUENCY / TIME EXPRESSIONS
A regular habit or routine	<i>I regularly chat with friends.</i>	always, usually, generally, regularly, occasionally, frequently, often, sometimes, rarely, seldom, never at 1 o'clock, at night, in the morning, on Fridays, every week, once a month / day, how often ... ?
A general truth or scientific fact	<i>Guy is an only child.</i>	
Stative verbs	<i>She likes to share pictures with her friends.</i>	
A future schedule or timetable	<i>My favourite TV show starts at 8 o'clock.</i>	

PRESENT CONTINUOUS

FORM		
Affirmative I am playing You are playing He / She / It is playing We / You / They are playing	Negative I am (I'm) not playing You are not (aren't) playing He / She / It is not (isn't) playing We / You / They are not (aren't) playing	Interrogative Am I playing? Are you playing? Is he / she / it playing? Are we / you / they playing?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
An action which is happening now	<i>Tom is watching a popular film now.</i>	now, right now, at the moment
A temporary action	<i>Everyone is talking about the new president these days.</i>	this year, at present, today, these days, this month
A definite plan for the near future	<i>We are meeting at Gina's tonight.</i>	this evening, tonight, tomorrow, next Friday / week / year

Stative Verbs

Ekintzak baino egoerak adierazten dituzte, eta *Present Simple* aditz-denboran erabiltzen dira. Honako ezaugarri hauekin lotura dute:

- emozio eta sentimenduekin (**dislike, enjoy, hate, hope, like, love, need, prefer, want**)
- pentsamenduarekin eta iritziarekin (**believe, forget, guess, know, remember, think, understand**)
- pertzepzio eta zentzumenekin (**feel, hear, see, smell, sound, taste, touch**)
- prezio eta neurriekin (**cost, measure, weigh**)
- jabetzarekin (**belong, have, own**)

Batzuek egoera eta ekintza adierazten dute. Horregatik, *Present Simple* eta *Present Continuous* aditz-denborekin erabil daitezke.

Will **thinks** it's important to express your feelings.

(Willek uste du garrantzitsua dela norberaren sentimenduak adieraztea.) [egoera]

They **are thinking** about talking it over later.

(Pentsatzen ari dira horri buruz beranduago hitz egitea.) [ekintza]

See aditzak *Present Continuous* aditz-denboran aldezturik finkatutako etorkizuneko ekintza adierazten du.

Paul **is seeing** his girlfriend, Lauren, tonight.

(Paulek bere neska-laguna, Lauren, ikusiko du gauean.)

[Geldituta daude dagoeneko.]

PAST SIMPLE

FORM		
Affirmative I / You slept He / She / It slept We / You / They slept	Negative I / You did not (didn't) sleep He / She / It did not (didn't) sleep We / You / They did not (didn't) sleep	Interrogative Did I / you sleep? Did he / she / it sleep? Did we / you / they sleep?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
A completed action in the past	<i>My sister and I had an argument yesterday.</i>	yesterday, last week / year, two days ago, in 2007, in the 1980s, in the 18th century, when, then
A series of completed actions in the past	<i>He felt confident and decided to run a business on his own.</i>	

PAST CONTINUOUS

FORM		
Affirmative I was listening You were listening He / She / It was listening We / You / They were listening	Negative I was not (wasn't) listening You were not (weren't) listening He / She / It was not (wasn't) listening We / You / They were not (weren't) listening	Interrogative Was I listening? Were you listening? Was he / she / it listening? Were we / you / they listening?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
An incomplete action in progress at a specific time in the past	<i>Sam was reading at 5 o'clock.</i>	last night / week / year, at 4 o'clock
An incomplete action in progress interrupted by another action	<i>When I was walking home, it started to rain.</i>	when, while, as
Two incomplete actions in progress at the same time in the past	<i>She was uploading some videos while we were posting our latest photos.</i>	

PRESENT PERFECT SIMPLE

FORM		
Affirmative I / You have gone He / She / It has gone We / You / They have gone	Negative I / You have not (haven't) gone He / She / It has not (hasn't) gone We / You / They have not (haven't) gone	Interrogative Have I / you gone? Has he / she / it gone? Have we / you / they gone?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
An action that began in the past and continues until the present	<i>We have lived in Ireland for two years.</i>	never, ever, already, just, yet, recently, lately, always, so far, for, since, in recent years, how long ... ?
An action that took place at an undetermined time in the past but is connected or relevant to the present	<i>She has called her friend recently.</i>	

PAST PERFECT SIMPLE

FORM		
Affirmative I / You had come He / She / It had come We / You / They had come	Negative I / You had not (hadn't) come He / She / It had not (hadn't) come We / You / They had not (hadn't) come	Interrogative Had I / you come? Had he / she / it come? Had we / you / they come?
USE	EXAMPLE	TIME EXPRESSIONS
A completed action which took place before another action in the past	<i>By the time we arrived, the concert had already started.</i>	already, by the time, after, before, until, never, just

FUTURE SIMPLE

FORM		
Affirmative I / You will go He / She / It will go We / You / They will go	Negative I / You will not (won't) go He / She / It will not (won't) go We / You / They will not (won't) go	Interrogative Will I / you go? Will he / she / it go? Will we / you / they go?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
A prediction	<i>You will be thrilled with this innovative device.</i>	this evening, in an hour, at 2 o'clock, later, tomorrow, next month / year, one day, soon, in a few weeks, in the future, on 1st May
Future events in a timetable / schedule	<i>The film will start in an hour.</i>	
A spontaneous decision	<i>I feel very tired, so I 'll have a rest.</i>	

BE GOING TO

FORM		
Affirmative I am going to swim You are going to swim He / She / It is going to swim We / You / They are going to swim	Negative I am (I'm) not going to swim You are not (aren't) going to swim He / She / It is not (isn't) going to swim We / You / They are not (aren't) going to swim	Interrogative Am I going to swim? Are you going to swim? Is he / she / it going to swim? Are we / you / they going to swim?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
A planned action for the future	<i>Bob is going to study telecom engineering next year.</i>	this evening, later, in an hour, at 4 o'clock, tomorrow, soon, next month / year / week, in a few weeks, in the future, on 8th May
An action that is about to happen	<i>I feel cold. I am going to close the window.</i>	

FUTURE CONTINUOUS

FORM		
Affirmative I / You will be dreaming He / She / It will be dreaming We / You / They will be dreaming	Negative I / You will not (won't) be dreaming He / She / It will not (won't) be dreaming We / You / They will not (won't) be dreaming	Interrogative Will I / you be dreaming? Will he / she / it be dreaming? Will we / you / they be dreaming?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
An action that will be or that we expect will be in progress at a certain future time	<i>At this time tomorrow, I will be attending a hi-tech exhibition.</i>	(at) this time tomorrow / next ... , soon, on Thursday, in the next decade, fifty years from now
Future plans	<i>They will be sleeping in a tent on Saturday.</i>	

FUTURE PERFECT SIMPLE

FORM		
Affirmative I / You will have left He / She / It will have left We / You / They will have left	Negative I / You will not (won't) have left He / She / It will not (won't) have left We / You / They will not (won't) have left	Interrogative Will I / you have left? Will he / she / it have left? Will we / you / they have left?
USE	EXAMPLE	TIME EXPRESSIONS
An action that will be or that we expect will be completed by a certain time in the future	<i>In three years, I will have saved enough money to buy a new car.</i>	by this time next week, by 3 o'clock, by the end of ... , by then, by August, by 2050, in four months, within a hundred years

UNIT 1 Hit The Road

PRESENT PERFECT CONTINUOUS

FORM		
Affirmative I / You have been waiting He / She / It has been waiting We / You / They have been waiting	Negative I / You have not (haven't) been waiting He / She / It has not (hasn't) been waiting We / You / They have not (haven't) been waiting	Interrogative Have I / you been waiting? Has he / she / it been waiting? Are we / you / they been waiting?
USES	EXAMPLES	TIME EXPRESSIONS
An action that started in the past and which still continues in the present	<i>How long have you been talking on the phone?</i>	for a month / year, since (2020), all night / morning / day / week, lately, how long ... ?
An action whose results are still apparent	<i>I'm exhausted. I have been working on this project all day.</i>	

PAST PERFECT CONTINUOUS

FORM		
Affirmative I / You had been running He / She / It had been running We / You / They had been running	Negative I / You had not (hadn't) been running He / She / It had not (hadn't) been running We / You / They had not (hadn't) been running	Interrogative Had I / you been running? Had he / she / it been running? Had we / you / they been running?
USE	EXAMPLE	TIME EXPRESSIONS
An action which continued for some time up to another past action	<i>They had been living in New York for years until they moved.</i>	for hours, since last April, all morning / night / day / week, when, until, before

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **had + been + -ing** bukaeradun aditz nagusia.

Ezezkoa: subjektua + **had + not (edo n't) + been + -ing** bukaeradun aditz nagusia.

Galderazkoa: **Had** + subjektua + **been + -ing** bukaeradun aditz nagusia.

Erabilera

- Iraganean gertatutako ekintza luze bati buruz hitz egiteko erabiltzen da, iraganean gertatutako beste ekintza labur baten aurretik. Oso ohikoa da "egon" + *izan* aditzaren iraganeke formarekin itzultzea

*We **had been walking** for hours when we suddenly decided to hop on a bus.*

(Orduak egon ginen ibiltzen, bat-batean autobusean muntatzea erabaki genuenean.)

Ohikoena da bi ekintza hauek juntagailu baten bidez lotuta joatea. Juntagailu hori denborazkoa izan daiteke, koadroan daudenak bezala (**when, until, before**), kontzesiboa (**although**), edo kausala (**because**).

*Her eyes were red **because** she had been crying.*

(Bere begiak gorriak zeuden negarrez egon zelako.)

Present Perfect Continuous aditz-denbora orain dela denbora bat hasi eta oraindik abian dauden ekintzak adierazteko erabiltzen da. Ekintzaren iraupena nabarmendu daiteke **for, since, all day**, eta antzeko adierazpenak erabiltzen.

*Sam **has been studying** French for years.*

(Samek urteak daramatza frantsesa ikasten.)

Aldiz, *Past Perfect Continuous* aditz-denborak iraganeke ekintza baten iraupena deskribatzen du beste ekintza bat hasi arte.

*We **had been walking** for hours when Jon tripped.*

(Orduak generamatzan oinez, Jonek estropezu egin zuenean.)

Oharra: *Present Perfect Continuous* eta *Past Perfect Continuous* aditz-denborekin ez dira **know** eta **want** bezalako aditz estatikoak erabiltzen.

*Mark **has known** since last month that his family is moving abroad.*

(Markelek badaki joan den hilabetetik bere familiak atzerrira bizilekua aldatuko duela.)

UNIT 2 Always Learning

BALDINTZAZKO PERPAUSAK

CONDITIONAL CLAUSE	RESULT CLAUSE	EXAMPLES
ZERO CONDITIONAL		
<i>if / when / unless</i> + Present Simple	Present Simple modal + base form	<i>If / When two people have got a lot in common, they normally get along.</i> <i>You can't participate in the course unless you apply for it.</i>
FIRST CONDITIONAL		
<i>if / unless</i> + Present Simple	Future Simple imperative modal + base form	<i>If you take my advice, you will do better in the exam.</i> <i>If she takes you for granted, ignore her.</i> <i>You can join us if you are free tonight.</i>
SECOND CONDITIONAL		
<i>if / unless</i> + Past Simple	<i>would / could / might</i> + base form	<i>If Sarah and I had the money, we would buy a house.</i> <i>If you got to know each other, you could / might be friends.</i>
THIRD CONDITIONAL		
<i>if</i> + Past Perfect Simple	<i>would have / could / might have</i> + past participle	<i>If you had apologised, I would have forgiven you.</i> <i>If we hadn't grown apart, we could / might have been close friends.</i>

Baldintzazko perpausak honako hauek osatzen dituzte: mendeko perpaus bat, baldintza adierazten duena, eta perpaus nagusi bat, ondorioa adierazten duena. Baldintza lehenik joatekotan, koma bat ipintzen da mendeko perpausaren eta perpaus nagusiaren artean.

*If they **go** to the cinema, they **will watch** a foreign film.*
(Zinemara joaten badira, atzerriko film bat ikusiko dute.)

*They **will watch** a foreign film if they **go** to the cinema.*
(Atzerriko film bat ikusiko dute zinemara joaten badira.)

Zero baldintza

Baldintzan **if** + *Present Simple* aditz-denborarekin eta ondorioan *Present Simple* aditz-denborarekin eratzen da. Baldintza betetzen denean beti gertatzen dena adierazteko erabiltzen da. Egia orokorrak dira. **When** erabil daiteke **if** erabili beharrean, esanahia aldatu gabe.

*If you **disapprove** of something, you **don't agree** with it.*
(Zerbait gaitzesten baduzu, ez zaude ados horrekin.)

*When I **sleep less than eight hours**, I **feel** tired.*
(Zortzi ordu baino gutxiago lo egiten badut, nekatuta sentitzen naiz.)

Present Simple aditz-denboraz gain, moduzko aditzak ere erabil daitezke ondorioan.

*If you **have** celiac disease, you **can't eat** gluten.*
(Gaixotasun zeliakoa badaukazu, ezin duzu glutenik jan.)

Baldintza ez betetzearen ondorioz zer gertatuko den adierazteko, menpeko perpausa **unless** juntagailuarekin hasten da, **if not** erabiltzearen baliokidea dena ("ez ba ..." / "ezean"), edo baldintzazko perpausaren aditza ezeztatzen da.

*Unless I **use** a GPS, I **get** lost.*

*If I **don't use** a GPS, I **get** lost.*

(GPSa erabili ezean / erabiltzen ez badut, galdu egiten naiz.)

Gogoan izan **unless** maiztasun handiz erabiltzen dela zero baldintzan eta baldintzazko lehenengoan, baina gutxiago bigarrean, eta inoiz ez hirugarrenean.

Lehenengo baldintza

Baldintzan **if** + *Present Simple* aditz-denborarekin eta ondorioan *Future Simple* aditz-denborarekin eratzen da. Adierazitako baldintza betez gero gertatuko dena edo gertatuko dela uste dena adierazteko erabiltzen da.

*If she **treats** him with respect, she **won't hurt** his feelings.*

(Errespetuz tratatzen badu, ez die haren sentimenduei minik emango.)

Future Simple aditz-denboraz gain, moduzko aditzak edo agintera ere erabil daitezke ondorioan.

*If you **receive** an e-mail with a suspicious attachment, **don't download** it.*

(Eranskin susmagarri batekin e-mail bat jasotzen baduzu, ez deskargatu.)

Oharra: batzuetan, moduzko aditzak baldintzan zein ondorioan erabil daitezke.

*If you **can** arrive on time, you **should** see the exhibition.*

(Garaiz heldu bazaitezke, erakusketa ikusi beharko zenuke.)

Bigarren baldintza

Baldintzan **if** + *Past Simple* aditz-denborarekin eta ondorioan **would** + oinarritzko aditz-formarekin eratzen da. Baldintza betetzen bada zer gertatuko litzatekeen adierazteko erabiltzen da, orainaldiari edo lehenaldiari erreferentzia egiten dieten egoera hipotetikoei buruz hitz egiten denean. Aholkuak emateko ere balio du.

*They **would** come if they **didn't** live so far away.*

(Etorriko lirateke, ez balira hain urrun biziko.)

Baldintzako perpauseko aditza **to be** denean, **were** singularreko eta pluraleko pertsona guztiekin erabili ohi den arren, **was** formaren erabilera gero eta hedatuagoa dago lehenengo eta hirugarren pertsonetarako testuinguru informaletan.

*If he **were** / **was** a teacher, he **would** work in a school.*

(Irakaslea izango balitz, eskola batean egingo luke lan.)

Aholkuak emateko **If I were** formula erabiltzen da.

*If I **were** you, I **would** move on.*

(Zu izango banintz, egoera ahaztuko nuke.)

Would erabili ordez **could** eta **might** moduzko aditzak ere erabil daitezke ondorioan, baina biek hipotesia burutzeko aukera txikiagoa dela adierazten dute. Euskaraz, baliokideak dira "agian, beharbada, gerta / izan liteke" eta antzekoak.

*If the tickets **were** cheaper, we **could** / **might** go to the theatre more often.*

(Sarrerak merkeagoak balira, agian sarriago joango ginateke zinemara.)

DESIRA-PERPAUSAK

FORM	USES	EXAMPLES
<i>wish</i> / <i>if only</i> + Past Simple or <i>would</i> / <i>could</i> + base form	Refers to a present situation that the speaker is unhappy about	<i>I wish I had the power to put an end to violence.</i> <i>If only that band performed in London.</i> <i>I wish people wouldn't say that!</i> <i>If only we could change the past.</i>
<i>wish</i> / <i>if only</i> + Past Perfect Simple	Expresses regret about a past action or situation	<i>I wish he hadn't got into trouble.</i> <i>If only we had thought this through.</i>

Desira-perpausek gura bat adierazten dute eta **wish** aditzarekin edo **if only** adierazpenarekin eratu daitezke.

Wish aditzak menpeko perpaus bat erabiltzen du osagarri zuzen gisa. Euskaratzeko "nahiko nuke, zenuke ...", "gustatuko litzaidake, litzaioke ..." erabili ohi dira.

If only egiturak ere adiera bera du: "nahiago nuke, luke ...", "gutxienez ...".

Hirugarren baldintza

Baldintzan **if** + *Past Perfect Simple* aditz-denborarekin eta ondorioan **would have** + partizipioarekin eratzen da. Baldintza bete izan balitz zer gerta zitekeen adierazteko erabiltzen da erabat ezinezkoak diren baldintzei buruz hitz egiten dugunean, iraganera erreferentzia egiten dutelako, eta ezin dira orain bete.

*If they **hadn't** gone to the same school, they **wouldn't** have met each other.*

(Eskola berera joan izan ez balira, ez zuketen elkar ezagutuko.)

Would have + partizipioa erabili ordez, ondorioan **could have** eta **might have** + partizipioa ere erabil daitezke.

*If you **had** saved some money, you **could** / **might** have gone on holiday.*

(Dirua aurreztu izan bazenu, oporretara joan ahal izango zinatekeen.)

Denborazko perpausak

Etorkizunari erreferentzia egiten diotenak lehenengo baldintzako esaldiak bezala eratzen dira: *Present Simple* aditz-denbora menpeko perpausean eta *Future Simple* aditz-denbora perpaus nagusian. Gertaera orokorreari erreferentzia egiten diotenak zero baldintzako esaldiak bezala eratzen dira: *Present Simple* aditz-denbora menpeko perpausean eta perpaus nagusian. **If** edo **unless** juntagailuak erabili beharrean, **as soon as**, **by the time**, **the moment (that)**, **when**, **until** eta abar denbora-adierazpenak erabiltzen dira.

*You'll feel better **by the time** you **get** home.*

(Hobeto sentituko zara etxera heltzen zarenean.)

***When** I **talk** to my friends, we **catch up** on the latest news.*

(Nire lagunekin hitz egiten dudanean, azkenengo berriei buruz egunean ipintzen gara.)

*I **wish** / **If only** it **weren't** so cold.*

(Gutxienez hainbeste hotz egingo ez balu. /

Nahiko nuke hainbeste hotz ez egitea.)

Bai **wish** bai **if only** aditz-denbora ezberdinekin erabil daitezke, taulan ikusten den bezala.

• *Past Simple* aditz-denborarekin, aldatu edo hobetu nahi ditugun orainaldiko egoerei egiten diegu erreferentzia.

I wish I knew how to help her.

(Bera nola lagundu jakitea nahiko nuke.)

Past Simple aditz-denboran doan aditza **to be** bada, **were** singularreko eta pluraleko pertsona guztiekin erabili ohi den arren, **was** formaren erabilera gero eta hedatuagoa dago singularreko lehenengo eta hirugarren pertsonetarako testuinguru informaletan.

I wish Matt were / was here.

(Nahiago nuke Matt hemen egongo balitz.)

- *Past Perfect Simple* aditz-denborarekin, gertatu diren ekintzei egiten diegu erreferentzia gertatutakoaz damutuz.

I wish I hadn't declined the offer.

(Nahiago nuke eskaintzari uko egin izan ez banio.)

Phrasal Verbs

Partikula batez edo biz (preposizioak, adberbioak edo bien konbinazioa) jarraitutako aditzak dira, hitz bakoitzak bakarka duenaz bestelako esanahi batekin.

Iragankorrak edo iragangaitzak izan daitezke.

*She has always **looked up to** her mother.*

(Beti miretsi izan du bere ama.)

*Be patient. You will **catch on** soon.*

(Pazientzia izan. Laster ulertuko duzu.)

Iragankor gehienek osagai zuzena aditzaren eta partikularen artean jartzea baimentzen dute: osagaia izena bada, tartean edo atzean jar daiteke; baina izenordaina bada, nahitaez tartean jarri behar da.

*We **put off** the meeting.*

(Bilera atzeratu egin genuen.)

*We **put** the meeting **off**. We **put** it **off**.*

Hala ere, iragankor batzuk, iragangaitz guztiak eta bi partikulez osatuta daudenak banaezinak dira.

*Emily often **looks after** the children.*

(Emilyk maiz zaintzen ditu umeak.)

*She **fell behind** at school because she had been ill.*

(Atzeratuta gelditu zen ikastetxean gaixorik egon zelako.)

*He should learn to **stand up for** himself.*

(Bere burua defendatzen ikasi beharko luke.)

Aditz batzuk partikula ezberdinekin elkartu daitezke *phrasal verbs* ezberdinak eratzeko.

bring about (eragin, sortu)

bring back (bizitzara berriro ekarri, berreskuratu)

bring forward (aurreratu)

bring up (hazi)

Gainera, *phrasal verbs* askok esanahi bat baino gehiago dituzte:

catch up (-(en)gana heldu; egunean ipini)

go off (jo; alferrik galdu)

make up (adiskidetu; asmatu)

set up (sortu; ezarri, fundatu)

Kasu gehiago ikusteko, begira ezazu 30. orrialdeko *phrasal verbs* aditzen zerrenda.

UNIT 3 City Life

AHOTS PASIBOA

TENSES	ACTIVE	PASSIVE
Present Simple	The waiter serves the customers.	The customers are served by the waiter.
Present Continuous	The waiter is serving the customers.	The customers are being served by the waiter.
Past Simple	The waiter served the customers.	The customers were served by the waiter.
Past Continuous	The waiter was serving the customers.	The customers were being served by the waiter.
Present Perfect Simple	The waiter has served the customers.	The customers have been served by the waiter.
Past Perfect Simple	The waiter had served the customers.	The customers had been served by the waiter.
Future Simple	The waiter will serve the customers.	The customers will be served by the waiter.
Future Perfect Simple	The waiter will have served the customers.	The customers will have been served by the waiter.
Modals	The waiter must serve the customers.	The customers must be served by the waiter.
Modal Perfects	The waiter must have served the customers.	The customers must have been served by the waiter.
have to	The waiter has to serve the customers.	The customers have to be served by the waiter.
be going to	The waiter is going to serve the customers.	The customers are going to be served by the waiter.

Egitura

Baiezkoa: subjektua + **to be** aditz laguntzaile bezala dagokion denboran + aditz nagusiaren partizipioa.

*The table **was assembled** by Phil.*
(Mahaia muntatu zuen Philek.)

Ahots pasiboa askoz arruntagoa da ingelesez euskaraz baino; horregatik, itzultzerakoan aditza ahots aktiboan uztea hobesten da, forma inbertsonalak hautatuz edo hitzen hurrenkera aldatuz.

Ezezkoa: subjektua + **to be** aditz laguntzaile bezala dagokion denboran + **not** (edo **n't**) + aditz nagusiaren partizipioa.

*The table **wasn't assembled** by Phil.*
(Ez zuen mahaia muntatu Philek.)

Perpausak moduzko aditz bat, *Future Simple* aditz-denboran dagoen aditz bat edo aditz elkartu bat eramaten badu, moduzko aditza edo laguntzailea ezeztatzen da.

*That episode **can't be dubbed** until next Monday.*
(Atal hau ezin da bikoiztu datorren astelehenera arte.)

Galderazkoa: **to be** aditz laguntzaile bezala dagokion denboran + subjektua + aditz nagusiaren partizipioa.

***Was the table assembled** by Phil?*
(Mahaia muntatu zuen Philek?)

Galderan moduzko aditz bat, *Future Simple* aditz-denboran dagoen aditz bat edo aditz elkartu bat badago, perpaus pasiboa moduzko aditzarekin edo laguntzailearekin hasten da, ahots aktiboan bezala.

***Will Nora's paintings be exhibited** next week?*
(Erakutsiko dituzte Noraren koadroak datorren astean?)

Galdetzailea daramaten galderek ere laguntzailearen eta subjektuaren arteko hurrenkera aldatzen dute, galdetzaileak subjektu-lana egiten duenean izan ezik.

When was this flat purchased?
(Noiz erosi zen pisu hau?)

Who will be given an award?
(Nori eman zitzaion sari bat?)

Nola bilakatu perpaus aktibo bat pasibo

- Perpaus aktiboan aditzaren atzean doan osagarria subjektua izatera pasatzen da, osagarri zuzena edo zeharkakoa izan.

*Claire **filled the box** with valuable jewellery.*

***The box was filled** with valuable jewellery by Claire.*
(Clarek bitxi baliotsuekin bete zuen kutxa.)

Aditz batzuek, **give, send, tell, show, sell, offer** eta **pay** bezalakoek, bi osagai eraman ditzakete; ahots pasiboan, bi eratan kokatu daitezke.

They will give the owner their opinion.

The owner will be given their opinion.

Their opinion will be given to the owner.

[ez hain arrunta]

(Emango diote euren iritzia jabeari.)

Did they offer the participants a small reward?

Were the participants offered a small reward?

Was a small reward offered to the participants?

[ez hain arrunta]

(Parte-hartzaileei sari bat eskaini zitzaien?)

- **To be** aditza perpaus aktiboan aditz nagusiak zuen denboran jarriko dugu, eta aditz nagusia, partizipioan.

*She **rented out** her flat last summer.*

*Her flat **was rented out** last summer.*

(Pisua alokairuan ipini zuen joan den udan.)

Moduzko aditzei eta **be going to** egiturari dagokienez, jarraitzen dien aditza da ahots pasiboan jartzen dena.

*We **should cut down on** our expenses.*

*Our expenses **should be cut down on**.*

(Gure gastuak murriztu beharko genituzke.)

*That shop **is going to give** a discount tomorrow.*

*A discount **is going to be given** tomorrow (at that shop).*

(Beherapena eskainiko da bihar (denda horretan).)

- Perpaus aktiboko subjektua esaldiaren bukaeran ipintzen da, aurretik **by** preposizioa daramala. Eta dagokion izenordain objektuaz trukatu behar da, pertsona-izenordaina bada.

*They **split** the cost.*

*The cost **was split by them**.*

(Gastuak elkarbanatu zituzten.)

- Iritzi, pentsamendu edo sinesmen bat adierazteko, **say, think, believe, know, report, claim, expect** eta **consider** bezalako aditzekin bi egitura erabil daitezke ahots pasiboan.

1. Egitura inbertsonal bat **it** + aditza ahots pasiboan + **that** partikulaz sartutako mendeko perpausa egiturarekin. Perpaus inbertsonal bezala ("... esaten / pentsatzen / sinisten da.") euskaratzen da.

Ahots pasiboan, **expect** esaldietan, mendeko perpausaren aditza etorkizuneko aditz-denbora batean doa.

*It **is expected that** the documentary **will reach** all audiences.*

(Dokumentala publiko guztiei heltzea espero da / dute.)

Know ez da normalean itzultzen ahots aktiboan; aldiz, ahots pasiboan itzul daiteke.

*It **is known that** many animals die because of global warming.*

(Jakina da berotze globalagatik animalia asko hiltzen direla.)

2. Subjektua + aditza ahots pasiboan + infinitiboa egitura batekin. Ahots pasibo mota hau esaldi inbertsonal batekin edo ahots aktiboan euskaratzen da.

*That chef **is said to be** the best in the city.*

(Esaten da / dute hiriko chef hoberena dela.)

Consider aditzari ezin dio **that** partikulak jarraitu ahots pasiboan, eta bigarren egitura horrekin bakarrik erabil daiteke.

*Italy **is considered to have** one of the best gastronomic cultures in the world.*

(Italiak munduko kultura gastronomiko hoberenatarikoa duela jotzen da.)

Erabilera

- Ekintza hau burutzen duen subjektuak baino garrantzitsuagoa dela adieraztea, subjektua garrantzi gutxikoa edo ezezaguna delako edo ez delako aipatu nahi. Gainera, horrela, **somebody, nobody**, eta antzeko subjektua daukan ahots aktiboko esaldia ekidingo da.

*Somebody **ordered** a drink in the restaurant.*

*A drink **was ordered** in the restaurant.*

(Edari bat eskatu zuten jatetxean.)

Aditz arazleak:

have / get + something done

Have / get + osagarri zuzena + partizipioa egiturak norbaiti enkargatutako ekintzak adierazten ditu.

*I'm **going to have / get** my hair **cut** tomorrow.*

(Bihar ilea moztera noa.)

[beste pertsona batek egingo du]

*Mike **had** his food **prepared** by a chef.*

(Mikeri sukaldari batek prestatu zion janaria.)

*Julia **will have** her phone **fixed** tomorrow.*

(Juliari konponduko diote telefonoa bihar.)

Egitura honek esanahi pasiboa du, erdian doan osagarri zuzenak partizipioan doan aditzaren ekintza jasotzen duelako, baina euskaratzerakoan ahots aktiboa erabiltzen da.

*I **owed** Jake some money, so I **got it transferred** yesterday.*

(Dirua zor nion Jakeri, beraz, transferentzia bat egin nion atzo.)

*Eli **should have** his computer **repaired**.*

(Elik bere ordenagailua konpondu beharko luke.)

*Kylie **had** her house **painted** last week.*

(Kylie etxea margotu zuen joan den astean.)

[pintore batek egin zuen]

Biak bereizgabe erabiltzen diren arren, **get** informalagoa eta ohikoagoa da ingeles mintzatuan.

*They **get** the office **cleaned** on Fridays.*

(Ostiraletan garbitzen diete bulegoa.)

UNIT 4 Health Kicks

ERLATIBOZKO PERPAUSAK

DEFINING RELATIVE CLAUSES	
USES	EXAMPLES
who and that refer to people	<i>Mary is the girl who / that went to school in Finland.</i>
which and that refer to objects, animals ...	<i>The lessons which / that they attended were enjoyable.</i>
when and that refer to a moment in time	<i>He'll never forget the day when / that he met Beth.</i>
where refers to a particular place	<i>This is the library where we do our weekly assignments.</i>
whose refers to possession	<i>That's the man whose scientific research was a success.</i>
NON-DEFINING RELATIVE CLAUSES	
USE	EXAMPLE
that cannot be used	<i>Anne, who is a history expert, got a doctorate in 2011.</i> * <i>Anne, that is a history expert, got a doctorate in 2011.</i> [Ez da zuzena]

Erlatibozko izenordain edo adberbio batekin hasten diren adjektibozko menpeko perpausak dira, eta bi motatakoak daude: **defining** (murrizgarriak) eta **non-defining** (ez-murrizgarriak).

Perpaus murrizgarriak

Ezinbesteko informazioa ematen dute aurrekaria identifikatzeko.

- **Who** (pertsonak) eta **which** (gauzak, animaliak...) **that** izenordainarekin ordezkatu daitezke. Hiru izenordainak isilean gorde daitezke, osagarri baten funtzioa badaukate eta beti menpeko esaldiko subjektua ez direnean.

*We didn't like the play **which** / **that** they performed in.*

We didn't like the play they performed in.

(Haiek antzeztu zuten antzerki-lana ez zitzaigun gustatu.)

- **When** (denbora) **that** izenordainarekin ordezkatu ohi da, edo isilean gorde testuinguru informalean denborari erreferentzia egiten dioten izenen bat (**day**, **week**, **time**, etab.) aurretik doanean.

*It was the day **when** / **that** she started university.*

It was the day she started university.

(Unibertsitatea hasi zuen eguna zen.)

- **Whose** (jabetza) eta **where** (lekua) ezin dira isilean gorde, ezta **that** izenordainarekin ordezkatu ere.

*He is the boy **whose** dreams came true.*

(Bera da ametsak egia bilakatu zitzaizkion mutila.)

*This is the city **where** George was born.*

(Hau da George jaio zen hiria.)

Erlatibozko hitzaren aurrean preposizio bat joaten bada, ohikoena kentzea da, eta preposizioa menpeko perpausaren ondoren kokatzea.

*The woman (**who** / **that**) I talked **to** was very nervous.*

(Nirekin hitz egin zuen emakumea oso urduri zegoen.)

Perpaus ez-murrizgarriak

Aurrekaria identifikatzeko beharrezkoa ez den informazioa ematen dute, eta koma artean doaz.

Who, **which**, **when**, **where** eta **whose** izenordainekin eratzen dira. Ezin dira inoiz isilean gorde, ezta **that** izenordainarekin ordezkatu ere.

*Mike, **who** is a remarkable student, always goes over his notes before an exam.*

(Mikek, ikasle bikaina bera, beti errepasatzen ditu apunteak azterketa baten aurretik.)

Egitura jasoa eta informala

Perpaus murrizgarrietan, erlatibozkoak preposizioa badarama, **which** erabiltzen jarraitzen da aurrekaria gauza denean; baina pertsona bada, **who** erabili ordez **whom** erabiltzen da. Hau oso erabilera jasoa da. Bi kasuetan ohikoena da preposizioa menpeko perpausaren aditzaren atzean kokatzea, eta erlatibozko izenordaina isiltzea.

*This is the building **in which** I've lived for three years.* [jasoa]

*This is the building (**which**) I've lived **in** for three years.* [informala]

(Hau da hiru urtez bizitzen egon naizen eraikina.)

*The man **to whom** he talked was the manager.* [jasoa]

*The man (**who**) he talked **to** was the manager.* [informala]

(Gerentea zen berarekin hitz egiten aritu zen gizona.)

UNIT 5 What's On?

MODUZKO ADITZAK

MODALS	USES	EXAMPLES
can	Ability	<i>She can speak Chinese.</i> (Txineraz hitz egiten daki.)
	Request, permission	<i>Can we go by cable car? Yes, you can.</i> (Teleferikoan joan gaitzeko? Bai.)
	Possibility	<i>She can take a bus to work.</i> (Autobusa har dezake lanera joateko.)
	Offer	<i>Can I drive you home? (Autoz eraman zaitzaket etxera?)</i>
be able to	Ability	<i>Peter is able to ride a bike.</i> (Peterrek badaki bizikletan ibiltzen.)
	Possibility	<i>Will you be able to arrive on time? (Garaiz iritsi ahal izango duzu?)</i>
can't	Inability	<i>We can't do anything to improve our lives without help from the government.</i> (Ezin dugu ezer egin gure bizitzak hobetzeko, gobernuaren laguntzarik gabe.)
	Prohibition	<i>You can't talk during the mayor's speech.</i> (Ezin duzu hitz egin alkatearen hitzaldian.)
	Strong disbelief, deduction	<i>He can't be wealthy – he lives in a slum.</i> (Ezin da aberatsa izan, auzo pobre batean bizi da.)
could	Past ability	<i>She could exercise for hours when she was young.</i> (Gaztea zenean, orduak eman zitzakeen ariketa fisikoa egiten.)
	Polite request	<i>Could we have the meeting after lunch?</i> (Bazkal ondoren egin genezake bilera?)
